

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

7/2019 Mozioa, urtarrilaren 30ekoa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio neurri fiskalak sustatu ditzala norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea ahalbidetzen duten neurriak ezarri izana egiaztatzen duten enpresa eta enpresarioen alde

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 30ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

7/2019 Mozioa, urtarrilaren 30ekoa, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiari eskatzen baitzaio neurri fiskalak sustatu ditzala norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea ahalbidetzen duten neurriak ezarri izana egiaztatzen duten enpresa eta enpresarioen alde.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote proposatu ditzatela, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko IV. Planari jarraituz, zerga pertsonalen alorreko neurri fiskalak enpresen alde (Sozietateen Zerga) eta enpresarioen alde (Pertsona Fisikoen gaineko Zerga), hain zuzen ere baldin eta enpresa eta enpresario horiek norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea ahalbidetzeko neurriak ezartzen badituzte. Emaitzak Zerga Koordinazio Organora eramango dira.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, nork bere eskumenen barruan, jarraitu dezatela norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea sustatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 30a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA